

# Peñas de Aia

Cuentan que es esta peña, cuyo nombre oficial es la Peña de Aia o Aiako Harria, el primer elemento natural que emergió en Euskal Herria. Se trata de una montaña granítica que ha pasado por diferentes denominaciones a lo largo del tiempo. Actualmente esta roca se conoce con el nombre de "**Peñas de Aia**" en plural, pero la primitiva denominación, en euskera y que se ha conservado hasta nuestros días, es "**Aiako Harria**" (la Peña de Aia), en singular. También se le llama "**Las tres coronas**" (les Trois Couronnes), denominación más extendida en Francia, es muy posible que los franceses dieran este nombre al monte. Los pescadores hondarribitarras llamaban a esta peña "**Ba-tallau**".

El primer pico se llama Hirumugarrieta ("el lugar de las tres mugas"), debido a que sirve de muga a los tres pueblos (Oiartzun, Lesaka e Irun), en la cima de este pico hay una piedra prismática triangular en cuyos lados aparecen grabadas las letras I, O y L correspondientes a los tres municipios. **Manuel de Lecuona** señala que es muy probable que en algún momento esta peña haya sido no sólo jurisdicción de tres municipios sino de tres reinos, Inglaterra, Castilla y Navarra. En los siglos XVI, XVII y XVIII al primer pico se le llamaba **Zamarrolagaña**, se escucha en las leyendas que en tiempos lejanos en la cumbre se encendían grandes fogatas a las noches para que los navegantes pudieran tener una referencia. A los pies de este primer pico se encuentra una fuente con aguas muy frescas llamada "**Azpeitiko iturriya**" (la fuente bajo la peña).

Los otros dos picos no tienen tan definida su nomenclatura, al segundo pico se le denominó en el plano de Irun de 1896 **Ayaco Arriya**, y al tercer pico, **Txurrumurru**. En Oiartzun se llama Txurrumurru al segundo pico y Errolbide al tercero.

En la altura de los picos tampoco hay datos unánimes: en el plano de Irun de 1896, al primer pico se le atribuyen 800 metros, en el de Oiartzun 780 metros. Al segundo pico en Irun y Oiartzun 823 metros. El tercer pico sólo viene recogido en el plano de Oiartzun con 837 metros.

En este parque natural se encuentra el "**Castillo del inglés**" que, aunque tiene esta denominación, no existe tal castillo ni fue habitado por un inglés sino que son las ruinas de la posada donde se hospedaban los mineros.

## La minería. Los Hornos de Irugurutzeta

Vestigios tales como bocaminas, chimeneas de aireación, escombreras, lavaderos, planos inclinados, cables aéreos, barracones mineros, cantinas, edificios de administración, ferrocarriles, acueductos, hornos de calcinación, ferrerías etc. se desparraman por la montaña irunesa humanizándola y son reconocibles al menor atisbo de atención. Los más próximos a Aiako Harria corresponden a las del "Coto de San Fernando" y se abren en su ladera N. entre los parajes de Aireko soroa y Aizpegietako soroa, constituyendo el "Aireko Palaziyoa" el más emblemático de los mismos. La misma carretera GI-3454 está parcialmente construida sobre la base del ferrocarril minero.

Uno de los espacios más conocidos de la actividad minera de Irun es el de la plataforma superior de la regata Sarjiñola-Meazuri sobre la famosa cascada de Aitzondo. En la charnela de esta plataforma se encuentran los barracones mineros, lavaderos y edificios auxiliares que conforman el núcleo de la actividad de los filones de Meazuri (filón blanco) y Meagorri (filón rojo) cuyas bocaminas se abren en las laderas, topónimos cuya sola mención ya nos retrotraen a la actividad minera.

Aguas arriba se sitúa el espectacular acueducto de Sarjiñola levantado sobre una pavorosa sima para evitar que las aguas de la regata anegaran la explotación. Aguas abajo, los famosos "túneles" por donde las vagonetas cargadas de mineral salvaban los contrafuertes de Askain Gaina sobre el abismo por donde se precipita la cascada de Aitzondo, para acceder al casco de Enbido, y, desde allí por plano inclinado llegar hasta los cargaderos y hornos de calcinación de Irugurutzeta.

Este escalón de la cascada está surcado por un vertiginoso e inverosímil sendero de explotación que en continuo zigzag, y paralelo a la caída de agua, trepaba por el murallón.

Esta zona no está abierta al público precisamente por tratarse de un espacio calificado dentro del Parque Natural de Aiako Harria como Zona de Reserva.

Aiako Harria acoge el sustrato geológico más antiguo de Euskal Herria. El batolito granítico de Aiako Harria es el resultado del enfriamiento del magma incandescente que ascendió hacia la corteza terrestre hace más de 250 millones de años. La transformación en la composición de los materiales rocosos aflorados propició la aparición de diversos mine-rales (plata, zinc, hierro, ...)

Desde los tiempos de los romanos los minerales de Aiako Harria han sido aprovechados por el hombre. A comienzos del siglo XX se produjo la mayor actividad minera en los montes de Irun. De las galerías de Meazuri, Meagorri, Aitzondo y Basakaitz se extraía el carbonato de hierro que era calcinado en los hornos de Irugurutzeta con el fin de convertirlo en óxido y aumentar así su ley metálica. El Ayuntamiento de Irun trabaja hoy para recuperar este patrimonio cultural, ponerlo en valor y ofrecerlo para conocimiento y disfrute de sus ciudadanos y visitantes.

Basta un sencillo recorrido por el territorio o por la toponimia de nuestra ciudad para topar con vestigios de esta actividad. Y entre las huellas materiales que han llegado a nuestros días, sobresale la batería de hornos de calcinación de Irugurutzeta, situada en el barrio de Meaka, al pie del impresionante desfiladero de Aitzondo, en el marco del Parque Natural de Aiako Harria.

La actividad minera en Aiako Harria se remonta a época romana y en otros tiempos, algunos no tan lejanos, supuso una importante fuente de recursos que dejó su impronta en la vida de Irun y sus gentes.

El mineral de hierro (carbonato férrico) era transportado desde los lugares de extracción (minas de Meazuri, Meagorri, Aitzondo, Basakaitz...) hasta los hornos mediante convoyes de vagonetas sobre vías de ferrocarril o de forma aérea con un tendido de cables de los que suspendían calderos.

La calcinación perseguía la transformación del carbonato de hierro en óxido y la mejora consecuente de su ley metálica. Para la combustión se añadían 30 kgs. de carbón por cada tonelada de carbonato, cargando el horno en capas alternas.



A pesar de los diferentes tipos de hornos existentes en Irugurutzeta (circulares, cuadrados, mampuesto, ladrillo...), todos ellos obedecen a una misma función y características: una enorme cámara de calcinación, alimentación superior y bocas inferiores de descarga.

## Fauna

La calidad de las aguas permite que en los ríos y arroyos habite el salmón del Bidasoa y Urumea (Salmo salar), el sábalo (Alosa alosa), la lamprea (Petromizon marinus), el desmán del pirineo (Galemys pyrenaicus) y el visón europeo (Mustela lutreola).

Los cielos están dominados por el **águila calzada** (Hieraaetus pennatus), al buitre leonado (Gyps fulvus), el alimoche (Neophron percnopterus) y el halcón abejero (Pernis apivorus). Entre el arbolado es posible observar los movimientos del **pico menor** y el **trepador azul**.

En la espesura del bosque se refugian el gato montés (Felix silvestres), el jabalí (Sus scrofa) ó el corzo (Capreolus capreolus). La ardilla trepa rauda a los árboles al menor movimiento sospechoso.

## Flora

La flora de Aiako Harria conserva todavía robledales y hayedos pero en buena parte está cubierto por plantaciones forestales de coníferas. En esta zona del Barranco de Endara el árbol dominante es el roble común mezclado con el roble pirenaico, destacando la presencia de ejemplares de madroño.

Entre las joyas botánicas del Parque Natural Aiako Harria destacan en los pastos la Daphne cneorum, rara planta de montaña de floración espectacular, la Petrocoptis pyrenaica y la Soldanella villosa, endemismos de roquedos y regatas respectivamente, así como la Saxifraga clusii, propia de la alta montaña pirenaica.

# Aiako Harriak

Izen ofiziala Peña de Aia edo Aiako Harria duen harri hori dela diote Euskal Herrian azaleratu zen lehen elementu naturala. Granitozko mendi bat da eta hainbat izen izan ditu denboran zehar. Gaur egun gazteleraz "**Peñas de Aia**" esaten zaio pluralean, baina lehen izena, euskaraz, eta gaur egun arte kontserbatu dena "**Aiako Harria**" da (la Peña de Aia), singularrean. "**Hiru Koroak**" (les Trois Couronnes) ere esaten zaio, baina izen hori batez ere Frantzian esaten diote, frantsesek seguru asko izen hori emango baitzioten mendi horri. Hondarribiko arrantzaleek "**Batallau**" deitzen diote harri honi.

Lehen tontorrari Hirumugarrieta ("hiru mugen lekua") deitzen zaio, Oiartzun, Lesaka eta Irun hiru herrien muga egiten duelako. Tontor horren gailurrean harri prismatiko triangeluar bat dago, eta harri horren hiru aldeetan I, O eta L letrak ageri dira, hiru herri horien inizialak, alegia. **Manuel de Lecuonak** dio seguru asko harri hori garai batean hiru udalerriren eskumenean ez ezik hiru erreinuren eskumenean ere egon zela, hau da, Ingalaterra, Gaztela eta Nafarroa. XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan lehen tontorrari **Zamarrolagaña** deitzen zitzaion, legenda batzuen arabera, antzina tontor horretan su handiak pizten omen ziren gauez nabigatzaileek erreferentzia bat izan zezaten. Lehen tontor horren oinetan iturri bat dago, "**Azpeitiko iturriya**" (haitzaren azpiko iturria), eta oso ur freskoa aurkituko dugu bertan.

Beste bi tontorren izenak ez daude hain garbi zehaztuta, bigarren tontorrari **Ayaco Arriya** deitu zitzaion 1896ko Irungo planoan, eta hirugarren tontorrari, **Txurrumurru**. Oiartzunen bigarren tontorrari deitzen zaio Txurrumurru eta hirugarrenari, berriz, Errolbide.

Tontor horien altuerari dagokionean ere datuak ez dira beti berdinak: 1896ko Irungo planoan jartzen du lehen tontorrak 800 metro dituela, Oiartzungoan, berriz, 780 metro dituela. Bigarren tontorrak 823 metro dituela adierazten dute Irungo eta Oiartzungo planoek. Hirugarren tontorra Oiartzungo planoan soilik ageri da eta 837 metro dituela dio.

Parke natural horretan dago, halaber, "**Ingelesaren Gaztelua**". Hala ere, izen hori izan arren, esan behar da ez dagoela gazteluk eta bertan ez zela ingeles bat bizi izan, meatzariek ostatu hartzen zuten bentaren hondakinak baino ez baitira.



## Meatzaritza. Irugurutzetako labeak

Meatzetako jarduera garrantzitsu honen aztarnak zabalduta daude Irungo mendietan barrena, eta erraz antzematen dira pixka bat begiratuz gero. Meatze-ahoek, aireztatzeko tximiniek, hondakindegiek, garbi-okiek, plano inklinatuek, aire-kableek, meatzarien barrakoi edo kantinek, administrazio-eraikinek, meatzetrenbideek, akueduktuek, kaltzinazio labeek, burdinolek, etb-ek gure paisaia zehazten eta gizatiartzen dute. Horien artean Aiako Harriko alde goienetik hurbilen dauden aztarnak "San Fernandoko barruti" koak dira, Aireko soroa eta Aizpegietako soroa gune artean, besteak beste "Aireko Palaziyoa" deritzona. GI-3454 errepidea bera ere, meatzetrenbidearen gainean egina dago.

Irungo meatzaritzako gunerik ezagunenetako bat Sarjiñola-Meazuriko errekaren arro gaineko plataforma da, Aitzondoko ur-jauzi ospetsuaren gainaldean. Goiplataforma horren txangan (bailararen hasierako mendebalde-ekialde orientazioa hego-iparrekoa bihurtzen den lekuan) daude Meazuriko (zain zuria) eta Meagorriko (zain gorria) zainetako jarduera-nukleoa osatzen duten meatzarien barrakoiak, garbitokiak eta eraikin osagarriak; meatze-ahoak, berriz, mendihegaletan irekitzen dira.

Txanga horretatik gora joanda, Sarjiñolako akueduktu ikusgarria dago, leize izugarri baten erdian, errekako urek ustiapena har ez zezaten eraiki zena. Plataformatik I.ra, "tunel" ospetsuak daude, Aitzondoko ur-jauzia erortzen den amildegiaren gainean; haietatik ibiltzen ziren mineralez zamatutako bagoitxoak, gero Enbidoko gainera iritsiz, eta plano inklinatua aprobetxatuz, minerala Irugurutzetako labeetara garraiatzeko.

Saltoa gainditzeko ustiapen-xendra zorabiagarri bat etengabeko sigisagan eta ur-jauziaren paraleloan doa hormatzarrean gora. Gune hori ez dago jendearentzako irekia, izan ere, Erreserbagune gisa kalifikatua dago Aiako Harria Parke Naturalaren barnean.

Aiako Harriak gordetzen du Euskal Herriko lurrik antzinakoena. Aiako Harriko batolito granitikoa duela 250 miloi urte baino gehiago lurrazalean agertutako magma goriaren hozduraren ondorioa da. Material harritsu honen transformazioak zenbait mineral preziatuen sorrera bultzatu zuen; hala nola: zilarra, zinka, burdina...

Erromatar garaitik Aiako Harriko mineralak ustiatu ditu gizakiak. Meatzaritzaiharduera handiena XX. mende hasieran gertatu zen Irungo mendietan. Meazuri, Meagorri, Aitzondo eta Basakaitzeko meategietatik burni karbonatoko minerala ateratzen zen, gero Irugurutzetako labeetan kiskaltzeko. Horrela oxido bihurtzen zen eta burni edukiera hobetzen zitzaion. Gaur egun ondare kultural hau berreskuratzen ari da Irungo Udala, bertakoek eta bisitariek ezagutu eta dasta dezaten.

Aski dugu gure lurraldean edo hiriko toponimian ibilbide labur bat egitea jarduera honen aztarnak topatzeko. Eta gaur egun arte iritsi diren aztarna material horien artetik, Irugurutzetako kiskaltzelabeen multzoa nabarmentzen da bereziki; Meaka auzoan kokatuak daude, Aitzondoko haitzarte zirraragarriaren oinetan, Aiako Harria Natur Parkearen barruan.

Aiako Harriko lehenengo meatzaritzajarduerak erromatarren garaikoak dira, baina hain urrun ez dauden beste garai batzuetan ere oso baliabide-iturri garrantzitsua izan ziren, eta Irungo biztanleen bizitzan arrasto nabarmena utzi zuten.

Burdin-mea (karbonato ferrikoa) ateratzen zuten tokietatik (Meazuri, Meagorri, Aitzondo, Basakaitz... meategietatik) labeetaraino garraiatzen zuten trenbide gaineko bagoneta-konboien bidez edota airez, pertz handi batzuk zintzilikatuta zihoazen hari batzuei esker.

Kiskaltze horren helburua burdinakarbonatoa oxido bihurtzea zen eta, horren bitartez, proportzio metalikoa hobetzea. Erreketa egiteko, 30 kg ikatz gehitzen ziren karbonato tona bakoitzeko eta tartekatutako geruzetan sartzen zuten labearen barruan. Irugurutzetan labe mota desberdinak dauden arren (zirkularrak, koadratuak, hormarriz eginak, adreiluz...), horiek guztiek egínkizun eta ezaugarri berberak dituzte: kiskaltzeganbera handi bat dute, goi-elikadura eta deskargarako behe-ahoak.

## Fauna

Ibai eta erreken uren kalitateak aukera ematen du fauna nabarmen bat egon dadin, bereziki Bidasoako eta Urumeako izokina (Salmo salar), kolaka (Alosa alosa), lanproia (Petromizon marinus), desman piriniarra (Galemys pyrenaicus) eta bisoi europarra (Mustela lutreola).

Zeruan nagusi dira arrano txikia (Hieraaetus pennatus), sai arrea (Gyps fulvus), sai zuria (Neophron percnopterus) eta zapelatz liztorjalea (Pernis apivorus). Zuhaitzietan okil txikia eta garrapoa ikus daitezke.

Ohianartean babesten dira basakatua (Felix silvestres), basurdea (Sus scrofa) edo orkatza (Capreolus capreolus). Urtxintxa azkar ibiltzen da zuhaitzetan gora.

## Flora

Aiako Harriko paisaian, hariztiak eta pagadiak oraindik badira ere, basoaren zati handia koniferoz beteta dago. Endarako sakana aldean, haritz arrunta da zuhaitz nagusia (Quercus robur edo ametza), pirinioetako haritzarekin eta haritz kandugabearekin batera.

Berezitasun gisa aipatu behar da gainera, gurbitza ere badagoela. Aiako Harriko Parke Naturaleko bitxikeri botanikoen artean, larreetan nagusi dira Daphne cneorum - loratze ikusgarria duen San Markos lorea -; Petrocoptis pyrenaica eta Soldanella villosa, haitzetako eta errekétako endemikoak, eta Saxifraga clusii delakoa, Pirinioetako goi-mendietako berezkoa.

# Cómo llegar

**Acceso:**
La carretera GI-3454 que atraviesa el barrio irunés de Ibarla-Meaka llega a la zona de Erlaitz, donde se encuentra el Punto de Información de Lapuriturri (Punto Kilométrico 11,46).

**Aparcamiento:**
Existen varias explanadas a lo largo del Parque donde se puede aparcar.

# Nola Iritsi

**Sarrera:**
GI-3454 errepidetik (Ibarla-Meaka irundar auzoa zeharkatzen duena) Erlaitzera iristen da eta bertan, Lapuriturri Informazio Gunea aurki daiteke. Parkean zehar zelaigune

**Aparkalekua:**
Parkean zehar zelaigune batzuk daude eta han aparkatu daiteke.

# Ficha técnica

| | |
|---|---|
| Clasificación | Parque Natural |
| Municipios | Donostia-San Sebastián, Errenteria, Hernani, Irun, Oiartzun |
| Información | **Oficina de Turismo:** Tel.: 943 645458 Fax: 943 645466 E-mail: turismo@bidasoa-activa.com www.bidasoaturismo.com<br>**Punto de Información de Aiako Harria:** Horario: Fines de semana (sábado y domingo), de 10.00 a 14.00 horas.<br>**Visitas guiadas**: El último domingo de cada mes a las 10:00 horas. Duración 2 horas. Precio 3 euros |



# Fitxa teknikoa

| | |
|---|---|
| **Turismo Bulegoa:** Tel.: 943 645458 Fax: 943 645466 E-mail: turismo@bidasoa-activa.com www.bidasoaturismo.com<br>**Informazio Gunea:** Ordutegia: Asteburuak (larunbata eta igandea), 10.00etatik 14.00etara.<br>**Bisita gidatuak:** Hilabeteko azken igandean 10etan. Iraupena 2 ordu. Prezioa 3 euro | Informazioa |
| Donostia-San Sebastián, Errenteria, Hernani, Irun, Oiartzun | Udalerriak |
| Parke Naturala | Sailkapena |



# Aiako Harria

Turismo Gipuzkoa · ¡Ven a Irun Zatoz! · Hondarribia-Irun Turismoa · Euskadi

# Recorrido
## Ibilbidea







